

Zelan izan da ikastaroko edozein egun?

Ikaslea 1

-“Bada, nire ikuspuntutik klase presentzialen antzekoa izan da. Oso ikastaro dinamikoa iruditu zait, askotariko puntuak landu ditugulako: gramatika, hiztegia, mintzamena, idazmena, eta abar. Etengabe aldatzen genuen jarduera, eta horrek nahiko entretenigarria egiten zuen.”

Ikaslea 2:

-“Egunaren arabera, egia esan klaseak oso dinamikak izan direla. 7:30 klasea hasi genuen eta 11:45 gutxi gorabehera amaitu genuen, gero mintzamena 14:00ak arte. Lehenengo tarte horretan, bai idazlana, entzumena eta irakurmena lantzen genuen, baita gramatika ere.”

Ikaslea 3:

-“Nik egin dudana ikastaroko egun guztiak onuragarriak izan dira. Goizeko 7:30etan hasten ginen egunero, alegia, asteleheneetik ostiralera, eta 11:30ak eta 12ak aldera amaitzen genuen. Ondoren, binaka ahozkoa lantzen genuen, azterketa balitz bezala, 12etatik ordu biak arte.”

Ikaslea 4:

-“Oso gustura egon naiz. Klaseak oso dinamikokoak izan dira eta horrek askoz eramangarriagoa egiten du. Errepikatuko nuke!”

Ikaslea 5

-“Trebetasun guztiak (entzumena, ahozkoa, idazmena eta irakurmena) lan egin ditugu. Hala HABEren azterketak nola beste azterketa batzuk (Hizkuntza Eskolakoa, IRALEkoa, IVAPEkoa, besteak beste) prestatu ditugu.”

Ikaslea 6:

-“Oso ondo egon da. Denetarik prestatu dugu, garrantzitsuena da jende gehiegi ez izatea. Pozik egon naiz. Gainera irakaslearen jarrera oso ona izan da beti prest laguntzeko.”